

PIARRES LARZABALEN ANTZERTIAREN HARRERA HEGO EUSKAL HERRIAN

Patri Urkizu, LIB, Euskaltzaindia
Baiona, 2015-X-16



Piarres Larzabal
Azkaine 1915– Sokoia 1988

Labaien eta Larzabal jaunei, Hego eta Iparreko euskal antzertiaren bi habe nagusiei, esker onez.

EUSKADIKO ANTZERTI ZERBITZUAK 1984ean eskatu zidanean Euskal Antzertiaren erakusketarako burutu nezan *Euskal Antzertia* liburua ez nuen inolako dudarik izan eskeintza egiterakoan. Gogoan dut ere nola erakusketa hau Museo San Telmon Manuel Lekuona, Ramon Labaien, eta Eugenio Arozenarekin batera aurkeztu ondoren, Baionako Euskal Erakustegian ere presentatu zela, eta nik hitz batzuk egin nituelarik Jean Haritschelhar bertako zuzendaria eta besteren batzuen gibeletik, mintzatu nintzela nazioen lehiaz eta exenplu emateaz, Jakes Belaren hitzak gogoratuz. Joseba Arregi garaian Kultur kontseilari zenak, ohiko harro puntuaz galdetu zidala ea ni nor nintzen mintzatzeko han, erantzun niolarik esposizioaren eta liburuaren egilea nintzela. Erakusketa hau Euskal Herrian zehar agertzeko eta ikusarazteko pentsatua zenez gogoan dut Donostia eta Baionaz aparte Bilbo, Oñati, Maule eta beste norabaitera ere eramán zela.

Baina ez zen hura lehen aldia aipatzen nituela Labaien eta Larzabal, zeren eta hamar urte lehenago, 1975ean Agora saiakera saria irabazi nuenean *Euskal Teatroaren Historia* lantxoarekin lehen oin oharra Piarres Larzabali eskainia nion aipatuz zioena *Gure Herria* aldizkarian teatroaren sorreraz: *antzertilaritza gizona bezain bat adintsu da eta nolakoa den jendetzaren bizibidea halakoa izaiten da heien antzertia eta jendetze bakoitzak ukan dituen gorabeheren gatik antze haroa ezta denetan bertenoran azaldu.* (1966 : 209)

Aipatzen nituen ere noski, Labaienek hamar urte lehenago, 1965ean hain zuzen, eskaini zizkion lerroak *Teatro éuskaro. Notas para una historia del arte dramático vasco*, eta *Teatro éuskaro. Entrevistas, Reseñas, Crónica. Catálogo de obras dramáticas* liburu bikoitzean. Hemen jasotzen zuen *Egan* aldizkarian 1957an idatzitako artikulua “Euskal Teatroy”-z, non beste zenbait egile eta obren artean honela aipatzen digun Azkaindar apaiza:

Tokiz aldatuaz pozik ikusten dugu Larzabal Piarres Zokoa'ko apaiz jauna beti gogor ari zaiugula teatrogintzan.

“Urriki latza”, “Tru lagun” ta “Bereterretxe” antziñako histori mingarria ederki tajutu ditu teatrorako. Hazparren'go talde bikañak ikasi ta agertu dituzte lan eder auek. Lenengo, beren sorterrian, ta gero Bayona, Donibane Lohizune, Garazi, Heleta eta beste erri askotan. Hazpandar neska-mutillak garaille gelditu zaizkigu beti ta txapela kenduaz, agur egiñik, emendik ere, txalo eskuaz ta biotzez jotzen diegu. (1965 : 147)

Halere, geroxeago ezagutu nuen pertsonalki. Iheslari abertzaleak gero eta gehiago izanez iparraldean, Telesforo de Monzon eta Angel Arregi adiskideekin montatu zuen « Anai-Artea » 1969an, euskal errefuxiatu politikoei laguntza eskaintzeko sortutako erakundea. Gose greba batean parte hartu zuen, Hendaiaiko Santa Ana elizan, 1979an Frantses Gobernuak 1979ko urtarrilean ihesliarren kontra hartutako erabakiagatik sartu baitziren protestan 1979ko abuztuaren 20an protestan 35 lagun. Eta hementxe izan nintzen berarekin hitzegiten egoeraz eta pittin bat teatroaz ere. Garai hartan Lezoko alkate nintzen.

Beraz itzuli gaitezen Larzabalen antzerkigintzara eta aurkez dezagun bere obra eta izan zuen harrera Hegoaldean. Ohartzen gara eta ikusten dugu aski goiz argitaratzen *Egan-en Okilomendi Jaun Mera* (1952), eta Koldo Mitxelenak bere *Historia de la Literatura Vasca*-n dioela:

Lo más destacado es seguramente la abundante producción del sacerdote Pierre Larzabal, que se mueve con igual desembarazo en la comedia y en el drama: *Okilomendi jaun mera, Urriki latza, Iru lagun, Bozak, Senperen gertatua, Etchahun*. Es un teatro sin audacias, voluntariamente apartado de cuanto pudiera desconcertar a un auditorio sencillo, pero sabiamente construido en su sobriedad, lleno de vida y de carácter. (1960 : 152)

Antonio Zavala Auspoa bildumako zuzendaria hasiko da argitaratzen Manuel Lekuona eta Luis Villasante apez eta fraidearen laguntzaz bi euskalkietan, alegia, lapurteraz eta gipuzkeraz, *bitara* hitzaurrean dioten bezala, azkaindarraren teatro lanak.

Koldo Mitxelenaren kulturunean dagoen Antonio Zavalaren artxiboa aztertuz gero, eta espero dezagun lehenbaitlehen ongi katalogaturik egotea osorik eta agiri funtsezkoenak digitalizaturik, hala nola Koldo Mitxelenaren funtsa, ohartzen gara bertan daudela mekanografiatuak ez bakarrik moldiztegitatu zituen bost obrak Auspoa aipatu bilduman (ikus zerrenda aurreraxeago), baizik eta beste multzo aski interesgarri bat. (KM n° 694317). Mekanografiatuak dauden testuak ondoren emango ditugun zenbaki hauei dagozkienak dira: 4, 7, 8, 9, 11, 12, 13, 15, 17, 18, 30, 31, 35, 38, eta 40.

Interesgarri dira, noski, eskuz idatzitako kopien oharrak, idatzitako urtea ere seinalatzen baitzaigu, eta edizioan titulu ezberdina hartu dutenak ere bai. Hala Manuel Lekuonak itzulitako *Hila esposatu*, lehen itzulpen saioan *Illa senar* bezala ageri da. Halaber *Senperen gertatua* besteetan *Urriki latza* bezala edo *Damu latza* bezala ageri zaigularik. Ez dugu ematen zerrenda testuen idatzi urtearen arabera argitaratzearena kontutan hartuta baizik.

PIARRES LARZABALEN ANTZERKI ARGITARATUAK

1. *Irri eta nigar* GURE HERRIA 1934. / Elkar, 1991.
2. *Merkatutik* GURE HERRIA 1937. / Elkar, 1991.
3. *Okilomendi Jaun Mera* EGAN 1952 / Elkar, 1991.
4. *Etxabun* GURE HERRIA 1953. / Elkar, 1991.
5. *Muthil berri* GURE HERRIA 1960.
6. *Herriko botzak* Auspoa 1962 / Elkar, 1991.
7. *Bordaxuri* Auspoa 1962 / Elkar, 1991.
8. *Hiru ziren* Auspoa 1962. / Elkar, 1991.
9. *Senperen gertatua* Auspoa 1964 / Elkar, 1992 / Egin 1995
10. *Orreaga* Goiztiri 1964 / Elkar, 1992./ Hiria 2010.
11. *Hila espos* Auspoa 1965 / Elkar, 1991.
12. *Orria 778* Antzerti 1983 /Elkar, 1992 / Hiria 2010
13. *Matalas* Antzerti 1984 / Elkar, 1992 / Azpeitia 1997 / Hiria 2010.
14. *Mugari tiro* EGAN 1984 / Elkar, 1991.
15. *Sarako lorea* EGAN 1984 / Elkar, 1992. / Hiria 2010
16. *Suedako neskatxa* EGAN 1985 / Elkar, 1992.
17. *Berterretx* EGAN 1985 / Elkar, 1991. / Hiria 2010
18. *Ihaureriak* EGAN 1987 / Elkar, 1992.
19. *Aralar* EGAN 1989 / Elkar, 1992.
20. *Hamalau urte* Elkar, 1991.
21. *Piarres zozo* Elkar, 1991.
22. *Gerla urte* Elkar, 1991.
23. *Kontrabandistak* Elkar, 1991.
24. *Dendarietan* Elkar, 1991.
25. *Manez ohoretan* Elkar, 1991.
26. *Ferrando* Elkar, 1991.
27. *Eiherazainaren astoa* Elkar, 1991.
28. *Sehi berri* Elkar, 1991.
29. *Lau donadoak* Elkar, 1991.
30. *Xirixti Mirixti* Elkar, 1991.
31. *Nork hil du Oihanalde?* Elkar, 1991.
32. *Portu xoko* Elkar, 1991.
33. *Basabeltz* Elkar, 1992.
34. *Lana eri* Elkar, 1992.
35. *Paper mende* Elkar, 1992.
36. *Ziri-ziri* Elkar, 1992.
37. *Nor da bobenduna* Elkar, 1992.
38. *Ibañeta* Elkar, 1992. / Hiria 2010
39. *Lartaun* Elkar, 1992. / Hiria 2010
40. *Roxali* Elkar, 1992.
41. *Otsoak artaldean* Elkar, 1992.
42. *Angles ginelarik* Elkar, 1992.

Mekanografiatuak soilik

- 43. *Amerikanoaren ilobak* KM, C-381 F-16
- 44. *Maitecharen ezkontza* KM, C-379 F-9
- 45. *Inpernuko dirua* KM, 091 ANT doc-67

Piarres Larzabalek aipatuak (Ed. P. Xarriton, VII. *Oroitzapenak*)

- 46. *Zirka Herrian.*
- 47. *Ugarte gazia.*
- 48. *Urchilotar horiek*
- 49. *Onyoketariak*
- 50. *Jaun kaputxin*
- 51. *Zakurrari lunetak*
- 52. *Hortz ateratzailea*
- 53. *Gure geroa*
- 54. *Edaria nagusi*
- 55. *Oraingo ezkontza*
- 56. *Torre Beltzeko ama*
- 57. *Aralarkeo pittika*
- 58. *Olaetako mandoa*
- 59. *Ama preso dugu*
- 60. *Makaiako Ganix*
- 61. *Kontrabandistaren alaba*
- 62. *Ziri-ziri*
- 63. *Oiloteian*

Isabel Etxeberriak aipatuak (2008)

- 64. *Intzolako bidean* (2008:178)

...

Kanpoan emateko pilota plazan (KM n° 694317)

- 65. *Lehen eta orain*
- 66. *Maritxu*
- 67. *Bihotz bero*
- 68. *Jauregiko alaba*
- 69. *Tuta-yotze.*

Eugenio Arozenak bildu eta Oiartzungo udalan daudenak

Berrogeita hamar testu, jadanik denak aipatuak.

....

Ehundik gora direla idatzi zituen antzerkiak aipatzen du Larzabalek berak, tamalez sakabanatuak daudenak hor nonbait, guk 45 bakarrik atxeman baititugu. Eta emankortasun hori zela eta Telesforo Monzonek gorai patzen zidan Sokoako apaizaren ugaria konparatuz gaztelaniazko teatroan hain ezagun den Lope de Vegarekin, hau ere apaiza.

Nola sailka genezake multzo hau? Piarres Xarrittonek *Matalas* aurkeztean (1984 : 9-10.) sailkapenari buruz mintzo zaigularik hauxe dio:

[...] Larzabalen antzerkiak eta ikusgarriak sailkatu nahiko direlarik, honelaxe egin ahalko dira:

1.- **Komedia** edo ikusgarri irri-egiteko eta jostatzekoak, adibidez, “Merkatutik”, “Okilomendi Jaun Mera”, “Xirixiti-Mirixiti”, “Portu-xoko”, “Herrian bozak” edo “Lau donadoak”, eta “Amerikanoaren ilobak”.

2.- **Tragedia** edo antzerki hunkigarri eta gogoetagarriak, hauen gaia izan dadiela **kontzientzia arazoa**: “Etxahun”, Sarako Lorea”, “Urriki latza” — **gizarte problema**: “Bordaxuri”, “Hiru ziren”, “Paper mende” — edo **abertzaletasuna**: “Mugari tiro”, “Matalas”, “Orreaga”.

Eta bere aldetik Ixabel Etxeberriak 2008an, Aurelia Arkotxaren zuzendaritzapean burutu eta Bordeleko Unibertsitatean ondorengo tituluaz aurkeztu tesian (*Piarres Larzabalen antzerkigintza 1950-1982 euskarazko antzerki identitarioaren paradigmak*) beste honako hau, xehetasun haundiagokoa dena presentatu zuen:

DRAMAK

1. Hilketak arruntak gaitzat dituztenak (*Senperen gertatua, Nor da hobendun*)
2. Historiarekin harreman zuzena dutenak (*Ibañeta, Ingles ginelarik, Gerla urte*)
3. Gazteen arazoak aipatzen dituztenak (*Hiru ziren, Paper mende*)

TRAGEDIAK

1. Historiarekin harremanak dituztenak (*Sarako Lorea, Etxahun, Bordaxuri, Matalas*)
2. Familietan gertatzen diren hilketak (*Nork hil du Oihanalde, Basabeltz*)

KOMEDIAK

1. Mugarekin zerikusia dutenak (*Intzolako bidean, Mugari Tiro, Kontrabandistak*)
2. Administrazioarekin zerikusia dutenak (*Okilomendi jaun mera, Herriko bozak, Manex oboretan*)

3. Lan munduarekin zerikusia dutenak (*Portu xoko, Sehi berri, Lana eri*)

4. Ezkontza eta familiarekin zer ikusia dutenak (*Mutil Berri, Lau donadoak, Dendarietan, Mekatutik, Irri eta nigar, Hila espos, Ferrando, Suedako neskatxa, Roxali, Piarrez gozo, Ziri-ziri, Eiberaçainaren astoa, Bordaxuri*)

Sailkapen mota aski ezberdinak egin daitezkeela ezaguna da, ikuspundua, begirada eta garrantzia non eta nondik zuzentzen direnaren arabera. Eta historia aipatzen denean, batzuetan argi dago pertsonaia errealak direla, benetan izandakoak (*Matalas, Bordaxuri, Etxahun...*) eta bestetan irudimenak asmatuak (*Lartaun...*). Besteak beste, izen lagunak adierazten duenaren ildotik hor ditugu: teatro abertzalea, teatro herrikoa, teatro nazionala, teatro rejonala, teatro klasikoa, teatro erromantikoa, teatro antropologikoa, teatro identitarioa, teatro epikoa, teatro dokumentala, teatro iraultzailea, absurdoaren teatroa, krudelitatearen teatroa, egunorokotasunaren teatroa, teatro pobrea, teatro esperimentalak, teatro panikoa...eta beste.

Baina gure gaia harrerarena denez eta testuei dagokiena ahalik eta osatuena ematen saiatuko garenez beha dezagun orain Hego Euskal Herrian aurkeztu ikuskizunei dagokiena.

URTEA	TEATRO TALDEAK	ANTZERKIA
1958	Ordiziako taldea	<i>Okillomendi alkate</i>
1960-XII-21	Eusko Iztundea (Donostia)	<i>Damu latza</i>
1962-XII-21	Eusko Iztundea (Donostia)	<i>Etxaun</i>
1964-IX-18	Jarra	<i>Nor Alkate</i>
1966-IX-8	Eusko Iztundea (Donostia)	<i>Inpernuko dirua</i>
1966 ing.	Allerru taldea (Lezo)	<i>Senperen gertatua</i>
1970	Intxixu taldea (Oiartzun)	<i>Lartaun</i>
1971	debekatua	<i>Bordaxuri</i>
1972	Intxixu taldea (Oiartzun)	<i>Aralar</i>
1974, 1975	Intxixu taldea (Oiartzun)	<i>Orria 778</i>
1975-I-3	Goaz taldea (Deba)	<i>Senperen gertatua</i>
1989	Ostibarreko taldea	<i>Suediako neskatxa</i>
1990-VII-21	Goaz taldea (Deba)	<i>Ihautiriak</i>
1998-IV-4	Bordaxuri taldea	<i>Bordaxuri</i>

Zortzi teatro talde eta hamaika antzerki ezberdinen berri lortu dugu gure harrera ehizean. Litekeena da eta ez dut dudarik eman dudana zerrenda hau zabalago eta haundiago izatea, baina ez dut aurkitu gehiago hemengo eta hango kazetak aztertzen eta arakutzen izan arren.

Dena den, hau ere Euskal Erakundeen errua da, zeren eta 1984ean proposatu nuenean Antzerti aldizkarian *Antzertiteka bat* eratzea eta Teatro edo Arte Eszenikoen Dokumentazio Zentro bat bertan ez nuen erantzun baikorrik jaso eta orain agian jasoak genituzkeen xehetasun gehienak. Tamalez, duela hogeita hamar urteko eskaera hura bidean galdu zen eta orain hutsuneak eta lanak ditugu ikerlanak eta tesiak egitean eta zuzentzean behar bezala taxuz eta seriotasunez burutu daitezen.

Gorago aitatu dugu duela menderdi bat Labaienek argitaratutako *Teatro euskaro* delakoan badakarrela artikulu bat EGAN 1957an plazaratua, non ematen zaigun beste zenbait informazioren artean Larzabalen antzertiaren berri modu honetan, hain zuzen: “[...] Orregatik pozgarriago zaigu jakitea Villafranca-Ordiziako talde batek ango euskal jaietan *Okilomendi Alkate* antzeztu dutela...”.

Eta Koldo Mitxelenak bere *Historia de la Literatura Vasca* (1960: 152) delakoan euskal teatroaz mintzo zaigularik honakoa dio, bitxia delarik aipatzen dituen antzerki batzuek oraindik argitaragabeak baitziren:

Lo más destacado es seguramente la abundante producción del sacerdote Pierre Larzabal, que se mueve con igual desembarazo en la comedia y en el drama: *Okilomendi jaun mera, Urriki latza, Iru lagun, Bozak, Semperen gertatua, Etchahun*. Es un teatro sin audacias, voluntariamente apartado de cuanto pudiera desconcertar a un auditorio sencillo, pero sabiamente construido en su sobriedad, lleno de vida y de carácter.

Esan bezala bitxia da aipatzea handik bi urtera argitaratuko ziren antzerkiak, esplika daitekeena jadanik argitaratzeko Zavalari bidaliak eta berak irakurriak izanak zituelako edo komentarioren bat *Herria* aldizkarian. Urte honetako Santo Tomas jaietan, programak dioen bezala Antzoki Zarra deituan, Euskal Iztundea taldeak arrakasta handiz arratsaldeko hiru saio ezberdinetan taularatu zuen ***Damu Latza*** deitu antzerkia. Eta ikuskizun honen berri eta komentarioak agertu ziren bai *El Diario Vasco*-n, bai *La Voz de España*-n, Donostiako bi egunkari nagusietan, bai eta Baionako *Herria*-n.

Azken honetan *Ikusliarra* bezala sinatzen zuen komentariogile anonimoak zioen:

[...] Hiru aldiz kokoteraino betea zela eta ez dutela sekulan holako errekestarik izan [...] gaude ez dutela Larzabal Jaunaren lanek Gipuzkoako eskuan deus galtzen, edo ez ote duten bederen zerbait irabazten...ez Zokoko erretoraren eskuaren gatik, hau garbienetarik eta azkarrenetarik baita, bainan Gipuzkoako eskuara

ederrak baduelakotz halako gordin eta jaun-aire bat teatroari ezin-hobeki dohakiona...

Halaber Melilla eta Madriden kazetari lanetan aritu ondoren Donostian teatro kritika egiten zuen Teodoro Goñi de Ayala (Tolosa 1890 - Donostia 1967) bezala sinatzen zuenak honakoa zioen:

La interpretación del Grupo de Arte de la Escuela de la Lengua y la Declamación Vasca del Ayuntamiento donostiarra fue como siempre magnífica, principalmente por lo que respecta a Jose María Etxeveste y Javier Tolarechipi [...] Ni qué decir tiene que la concurrencia que llenó hasta abarrotar el Teatro Principal aplaudió con verdadero entusiasmo los finales de acto y varios mutis. (*El Diario Vasco* 1960-XII-22)

Goñi de Ayala kazetaria *El Diario Vasco*-n erredaktore buru frankistak sartu zirenetik Donostian, eta aipatu Xabier Tolaretxipi (Donostia 1923-1976) antzezle eta komentariogile ere izan zen *La Voz de España*, *Zeruko Argia*, *Aranzazu*...aldizkarietan. Eta T. bezala sinatzen duenak *La Voz de España*-n ildo beretik diosku:

“Damu Latza” de P. Larzabal con un estilo “barriolano”, pero de una original audacia, va engarzando sus personajes en un dolorido “suspense, que, muchas veces llega a abrumar al espectador. Afronta de primeras el conflicto del hombre creyente convicto de asesinato pero confesado ante Dios y no hallado por la Justicia, no se obliga a expresarse como autor ante los hombres. Y he aquí que P. Larzabal con un libreto ágil y contundente... (*La Voz de España* 1960-XII-22)

Urriki latza, *Damu latza* eta *Senperen gertatua* titulu ezberdinez ezagutzen den lana Mixel Larralderen hilketaren inguruan dago taxutua, eta Senpereko Borotra erretorak eskaturik aldatu zion izena. Mixel Larralderen kanta Pierre Hiriartek (+ 1920) moldatu zuen, zeinak dioen azken bertsoan:

*Senperen gertatzeko, oi krima trixtea,
Sortuz geroz zor dugu, guzkiek hiltzea,
Bainan ez zauku aizu odol ixurtzea,
Horrek ekhartzen baitu denentzat kaltea.*

[Urkizu & alt., 2011 : 72]

Liburu gisara Zavalak argitaratu zuen 1964ean Auspoaren 34. alean, *bitara*, hau da, gipuzkerazko bertsoia Luis Villasantek moldatu zuelarik. 1965 urte inguruan Lezoko Allerru teatro taldeak bere gerraurreko ohitura eta

zaletasunari jarraikiz *Senperen gertatua* antzeztu zuen, eta hamar urte beranduago Lukax Dorronsorok zuzentzen zuen Debako *Goaz* taldeak ere bai, hain zuzen, 1975eko urtarrilaren hiruan eta apirilaren bostean.



El Diario Vasco 1960-XII-21

Etchahun, sei gertalditako ikusgailua 1951ean idatzi, Hazparneko gazteek 1952ko azaroaren 15ean eta 16an taularatu zuten, *Herria* aldizkarian kritikak (gordinkeria...) eta laudorioak jaso eta 53an *Gure Herrian* argitaratu zen. Larzabalen irudimen azkarrari aski izan zitzaion Piarres Lhandek eta Jean Larrasquetek 1946an argitaratu obra Pierre Topet Etxahunez (1786-1862) burutzeko bere tragedia.

Hamar urte beranduago Maria Dolores Agirrek zuzentzen zuen *Eusko Iztundea* teatro taldeak Santo Tomasetan aurkeztu zuen *Etxaun*, arratsalde bereko hiru emanalditan: 4.45, 7.30 eta 10.30tan. Oraingo honetan ere arrakasta handiz. Goñi de Ayala antzerti kritikoak honakoa zioen:

[...] Pierre Larzabal tiene bien acusada una virtud esencial para todo autor, que es la de reflejar con exactitud y fijeza el ambiente y las características raciales del público a quien transmite su mensaje. Maneja con sencillez, sin retórica ni retorcimientos dialécticos el escapelo cuando ha de corregir errores

[...] La vida del bardo que ve en su propia desgracia la infidelidad de la compañera, materia propicia para entregado a su individual filosofía transmitir la consiguiente enseñanza a los demás y que, acaso en un momento de flaqueza espiritual — desde luego muy propio de los seres humanos — le arrastra a una desesperación de tal fuerza que no halla dique de contención, tiene una ejemplarizadora finalidad para las conciencias...(*El Diario Vasco* 1962-XII-22)

Hizkuntzari bagagozkio esan beharra daukagu, noski, taldeak erabili zuen bertsioa gipuzkeraz idatzitakoa zela eta prest zegoela egina Auspoan ageri ziren beste zenbait antzerki bezalaxe *bitara* emateko (KM 694.317) prestatua, baina ez zitzaion suertatu plazaratua izatea. Etxahunen bizitzak literaturan izan zuen oihartzunik jadanik bizi zelarik Jean Baptiste Chahok frantsesez argitaratu baitzuen (“Histoire du Poète Basque Etchahon de Barcus”, *Revue des voyans* 1838) Pariseko aldizkari batean saio bat haren bizitza eta bertsotako antzeaz eta bere anaia Jean Pierrek itzuli *Barde baten izaitia* titulupean (HEGATS 5, 1991) Saio honetan dio bukaeran euskaldun mendietan barne ibiltzeko zoria izanez gero galdetzeko edozein haurri Etxahunen berri eta honek kantatuko zuela azkar haren bizitzaren kantaren hasiera hura:

*Mundin hanitz malerus arauz bazirre,
Bena ez ni bezainik ibur beharrere,
Ene emaztiaren nahiz izan jabe,
Gaxua jarririk niz ihun lurrik gabe.*

Lhande eta Larrasquetek moldatu edizio ederraren ondoren dator Pierre Espilek frantsesez argitaratu *Etchahun le malchanceux* (Euzkadi, 1947) eleberria, eta Larzabalek Gure Herrian *Etchahun* (1953) argitaratu zuen urte berean Pierre Bordazaharre errejentak, “Etxahun Iruri” goitizenez, plazaratu zuen *Etxahun Koblakari* (Barkoxe 1953, 1962), eta geroago, besteak beste, *Matalaz* (Eskiula 1955) eta *Berterretx* (Maule eta Ligi 1958). Eta ohar gaitezkeenez sujeta, hautu bera egin zuten zuberotarrek eta lapurtarrek.

Jakina da Victor Hugok 1827an *Cronwell* eta 1830an *Hernani* eskandala eta arrakasta handiz estreinatu zituenetik Alemaniatik zetorren erromantizismoaren historiarekiko joerari jarraiki, zabaldu egin zela hainbat antzerki European zehar eta Euskal literaturan ere, drama erromantizismo berankor baten fruitu direnak. Hala Jean Martin Hiribarrenen (1810-1866) *891an eskaldun gerla*, antzerkia eskuzkribu gisara Xipri Arbelbidek 1991an argitaratu arte ez zen ezagutu, Piarres Harizpe (1854-1925) abadearen *Karmela* antzerkia *Euskal Erria* aldizkarian (1886-87) plazaratu zen bertsotan eta zatika Amaia Boneta eta Gurutze Aldabaldetrekuren edizioa arte (1992) ia ezezaguna, Serafin Barojaren *Pudente* (1879) opera erromatar garaian kokatua eta euskal operaren aitzindaria,

Ramos Azkarateren *Beotibarko atzarraren oroipena* (1886) Erdi Aro berantiarrean kokatua eta beste. XX. mendera igaro eta Katalina Eleizegiren *Garbiñe* (1916) eta *Loreti* (1918), eta beste hainbatekin, **euskaldunen historia berreskuratzen eta goraipatzen** dituzten obrekin topo egiten dugu. Eta gerra zibilaren ondoren ere bide berari jarraituko zaizkio euskaldunen artean, Nemesio Etxanizek (*Irulearen negarra*, 1953), Jon Etxaidek (*Begia begi truk*, 1978), edota Antonio Labaienek (*Muñagorri*, 1978), hala nola Piarres Larzabal. Eta helburu berdintsua zuen bigarren mundu gerraren ondoren sortuko den bai teatro historikoak bai eta egungo pastoralak.

Gure historia berreskuratze eta goraipatzeaz aparte bazuen hirugarren xede bat drama historikoak, historiarekiko pasio zahar berrituak eta zen historia ofizialak, espainolak eta frantsesak ahanzten eta baztertzen edo gutxiesten zutenari herri kontzientzia eta memorian behar zuen tokia ematen saiatzea. Eta lehenaren medioz orainaren zenbait alde eta adierazpen debekatu eta zentsuratuak agerraraztea.

Hona nola kontatzen digun Larzabalek gertatu zitzaiona *Etxahun* ikustera joan zenean Donostiara:

Behin, Donostian, Santo Tomasetan, Victoria Eugenia antzokian emaiten zutelarik, jarria nintzen, nere burua ezagutarazi gabe, ikusleen artean, eta andere handi baten aldean. Antzerkian baitira senaz-emazteen arteko solas minbera batzuk, nere aldeko andereak galdegin zaitan ezagutzen nuenetz egilea. Baietz, ezagutzen nuela. Harek orduan ea apezka zen ala presuna ezkondua. Nik aldiz, zergatik galdatzen zuen hori. “Zeren eta, zaitan ihardetsi, ageri baita idazle horrek senar-emazten arteko harremanak hurbiletik ezagutzen dituela”. Nik orduan erantzun nion: “Baliteke nik jakin gabe, ezkondua izaitea, edo ezkondua bezala bizi izaitea”.

Emankizuna bururatzean, zuzendariak taula gainetik bota zuen honela: Badakigu gutartean dela obra honen egilea eta eskatzen diot gain honetara agertzea”. Nere aldeko andereak lepoa luzatu zuen, ikusi nahiz nor nondik aterako zen. Zuzendariak berriz: “Badakigu Larzabal jauna oso lotsatia dela, baina gutxienez bere tokian xuti dadila!” Orduan, kondenatu handiaren pare, xutitzen hasi nintzen, baina andere handiak, bere aldetik: “Aizu, ez xuti otoi! Usteko dute Larzabal zarella!”

Baina ikusi zuelarik azkenean, egiaz nor nintzen, haserre gorrian, atera zen kanpora. (Xarritton ed. 1998 : 174-175)

Piarres Lafittek 1963ko azaroaren 10ean egiten dionean Piarres Larzabali Euskaltzaindian sartzearen solasaren ihardespena honelaxe dio mintzatzen ari garen gaiaren gainean:

Nago, bizkitartean, ez diren ez agerriegi han-hemenka zure xede onak, bereziki predikuaren eite duten zonbait atheralditan: “*Mugari tiro*” delakoak bazuen itzalxka hori. Eta ez othe daukuzu *Etxahun* puska bat edertu zure “moralari” indar gehixago eman beharrez? Badakit antzerki-egilek gaien aldatzeko dretxo edo eskubidea badutela, bainan ez da erraiteko baizik.

Halere bizia badariote ausarki zure komediek...

[...] Hitz batez, eta huntan bururatzen dut: teatro-idazle handia zira, bertze asko dohainekin. Euskaltzaindiak ene ahotik erraiten dautzu bihotz-bihotzetik “ongi-ethorri”... (Piarres Lafitte, *Gure Herria*, Baiona 1963: 332-339)

Gabriel Arestik 1964 urteko maiatzaren 13an Donostiako antzerti astean hitzaldi bat eman zuen titulu honekin: *Euskal teatro berri baten beharra: euskal komedia*. Eta bertan beste zenbait iritzi interesgarriren artean honako zioen euskal antzertigintzaz eta antzerkigileez:

[...] Lotsa bagina bezala eskribitzen dugu, eta hau gure bekatu haundi bat da, gaurko euskal teatroak dadukan akatsik eta hogenik larriena. Hogen itsusi honetatik, nire iritzian, hiru idazle salbatzen dira, lapurtar bat, gipuzkoar bat eta bizkaitar bat: Pierre Lartzabal, Andoni Maria Labaien eta Agustin Zubikarai. Hauei eskerrak gure teatroa ezta hain gauza baldarra, hain gauza traketsa, hain gauza iluna. Baina geroago itzuliko gara zeregin honetara ere.

[...] Uste dut, nire iritzi egiazko, leial eta zintzoa da Teatrozko Euskaltzaindi edo Euskal Antzerti Zaindi horren buruzagia Tolosako jaun Andoni Maria Labaienek izan behar duela. Eta antzerti-zaintzat hautatu behar direla Sokoako parroko Piarres Larzabal eta Ondarroako Augustin Zubikarai jauna, lehen aipatu ditudanak, hiru hoiek direlako gure teatro-idazlaririk hoberenak.

Hamaika gai ezberdin jorratu zituen, noski, Larzabalek eta horien artean bat Ameriketako emigrazioarena izan zen, jadanik 1853ko Anton Abbadiaren Lore jokoetan agertu zena. Beraz mende bat lehenago. Kontatzen digunez, 1950. urte inguruan Euskal Herrian *bazen asko solas eta kalapita ere, batzu Ameriketarat joiatearen alde, bertze batzu kontra*, eta joan zitzaizkiola gazte batzuek idatz zezan gaiak komedia bat. Bertan artzai bezala izandako anhauztar batekin luze mintzatu ondoren burutu zuen antzerkia 1957an, urte berean Ezpeletan eta Donibane-Garazin jokatu zutelarik. Hau bost urte beranduago Zavalak

bitara moldiztegiratu Auspoa Bilduman hamalagarren zenbakiz **Iru ziren** titulupean. Eta urte berean **Herriko Bozak edo nor Alkate** Manuel Lekuonak gipuzkeraz emana. Aintzin-solas moduan ematen digu Larzabalek berak hitz gutxitan zein den bere poetika teatrala eta zein helburua. Hona bada hasiera:

Nere antzerki-gaiak, kasik denak, dira Eskual-Herrian edo bederen Eskualdunen artean gertatu edo gertatzen diren harat-hunatak.

Antzerki horien mamia, zintzo edo irrigarri, da bethi erakaspn emaile.

Nere erakaspna da, gutiz gehienetan oraiko egunari dohakona, Eskualdngoaren akulatzale, jende handien harrotzale (1962 : 8).

Beraz, *castigat ridendo mores* errefrau latindar ospetsuari eta Molière-ren eskolari jarraikitzen dio Larzabalek zuzen-zuzenean. Hala bada, Irriaren bitartez euskal gizartearen portaera gaiztoak kritikatzten, zuzentzen, eta hobetzen saiatuko da.

Jarrai teatro taldeak XXI Donostia'ko Euskal-Jaiak programaren (hau gaztelaniaz eta euskaraz idatzia zegoen) barrenean eman zen 1964eko irailaren 18an Teatro Príncipe deitu antzokian honako aktore eta zuzendariak osatzen zutelarik banaketa:

Nor Alkate

ALKATEA	Juan Antonio Arozena
JAUN PHELIPE	Xabier Goenaga
GREGORIO	Joseba Aldanondo
PERRATZAILEA	Peli Uranga
JOSE	Erramun Saizarbitoria
PAKO	Joseba Andoni Goñi
XIXON	Joxe Mari Aristi
OSTATU ANDRE	Mertxe Uranga
BERTA	Arantza Gurmendi
JUSTIÑA	Karmelo Esnal
DOLOREX	Mirari Muxika
Zuzentza-antolaketan	Iñaki Beobide

Liburu edizioaren aintzin-solaseko zenbait hitz jasotzen zituen programak, eta gai irrigarriak gogoko izan arren autoreak *Ez ditu amets utsak gogoko, funtsazkoak baizik*, zioen. Ez pentsatzeko bozkatzearen kondena egiten zuenik, urrats errespetagarri eta zintzotzat baitzuen, *gizonak emeki eta nekhez*

beretu duen dretxo bat. Zorigaitzez, dretxo errepetagarri hori ez da bethi errespetuki baliatua...



Jarraí teatro taldeak 1964ean hiru obra ezberdin aukeztu zituen: Maiatzaren 17an Donostiako Antzoki Zaharrean Eugenio O'Neill-en *Diff'rent- Bestelakoa*. Nemesio Etxanizek itzulita. Irailaren 18an Teatro Príncipe-n aipatutako Larzabalen *Nor Alkate*, eta abenduaren 13an berriro antzoki Zaharrean Gabriel Arestiren *Beste mundukoak eta zoro bat*. Aktibitate eta mugimendu bortitza zeramaten, zeren eta jadanik beste obren artean John Prietsley-ren *An inspector calls 'Ertzaña etxean'* antzeztua zuten (Itz.: J. Lekuona) Donostia, Tolosa, Bilbo, Iruña, Eibar, Arrasate, Bergara, Deba, Azpeitia, Andoain, Añorga, Hernani, eta Lekeitio-n, eta Tennessee Williams-en *The Glass Menagerie 'Kristalezko iruditxoak'* (Itz.: J. Lekuona). ZERUKO ARGIA astekarian artikulu mordoxka idazten zuten teatroaz eta beste anitz gaiez Tolaretxipi, Saizarbitoria, Lete, eta Beobidek. Horrela bada Leteri eginiko elkarrizketa batean honakoa izan zen kantari, poeta eta antzerkigilearen erantzuna:

- Xabier, zer diozu gaurko euskal-teatrotaz?
- Azken denbora auetan Lartzabal jauna izan da euskal teatroari kolore pixka bat eman diona. Bizkai aldetik, Zubikarai jauna ere jarri genezake lan prestu batzuen jabe bezela. Baño nere iritziz Gabriel Aresti izan da euskal teatroa kalidadezko bide berrietara zuzendu duena. Joan dan dagonillaren 13an ikusi gendun Donostin *Beste Mundukoak eta zoro bat* Arestiren obra jatorra eta

esan genezake egun artan eta obra arekin asi zela euskal-teatro berria. (“Elkarrizketa Xabier Leterekin”, *Zeruko Argia*, 1965-I-24.)

Ez ziren gelditu erantzunik gabe Leteren ez hitz haiek ez eta ordurarte eginiko euskal teatroarekiko beste batzu gogorxkoagoak zirenak. Piarres Larzabalek 1965eko ekainaren 25ean eman zuen Donostian hitzaldi bat *Gure Pastoral*a titulupean. Donostiako XXIII. *Euḟko Jaietan*, alegia 1966an, *Antḟoki Zaarrean* Euskal Iztunde taldeak aurkeztu zuen irailaren 9an, iragarkiak zioen bezala, Larzabalek egindako sikologi-antzerkia *Inpernuko dirua*. Zentsurak seinalatzen zuen eran hamasei urtetik gora zutenentzat zen zilegi soilik. Testuak, gorago agertu dugun bezala Koldo Mitxelena kulturunean 091 ANT doc-67-bezala dago katalogatua, eta Agora saria merezi izan zuen.

Baina itsuskeria handia gertatu zen eratzaileren partetik, zeren eta Larzabalen plika galdu zela eta honen aitzakian berriro epai-mahaia (Labaien, Zubikarai eta Karraskedo) bilduarazi zuen eta honek Pedro Sarriegik idatzitako *Jokaldi txar bat* antzerkiari eman zion saria. (I. Beobide, “Infernuko dirua edo Larzabal “aferra””, ZERUKO ARGIA, 1966, Irailak 18). Ez zen lehen aldia gertatzen zitzaizkiola horrelakorik, Ordizian *kanpoko*a zelako eman baitzioten bigarren saria, Beobiderek elkarrizketan salatzen denez.

Gaiak diruarenganako atxikimendu gehiegizkoak dakartzan kalteak azpimarratzen du, eta Etxebeste eta Alkorta aktoreak goren zituen beren lanean eta besteen gainetik ezartzen *La Voḟ de Espaḱako* Aramburu kazetariak (1966-IX-10). Joshe Leon bezala sinatzen zuen beste kazetari batek (*Unidad de la Tarde*, 1966-IX-10), laudorioz betetzen zituen ere Etxebeste, Pérez lapurraren paperean lana ongi burutzen zuelako, hala nola Alkorta bankariaren pertsonaia eta kontzientziaren ahotsa errepresentatzen zuena, ama eta alaba kaxkarin eta diru xahutzaile amorratuak erortzen baitziren lapurren eskuetan eta hauek eramaten baitzuten diru guztia infernura.

TEATRO PRINCIPAL	ANTZOKI ZAARREAN
HOY, 9 de septiembre de 1966	1966'ngo. Irailak 9
7.30 de la tarde y 11 de la noche	Arratsaldeko 7.30'tan eta gaueko 11'tan
FIESTAS EUSKARAS	EUZKO JAIETAN
TEATRO VASCO	EUSKAL ANTZERKIA
Organizado y patrocinado por el C.A.T., a cargo del Cuadro de Arte de la ESCUELA DE LA LENGUA Y DECLAMACION VASCA, del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián.	Donosti'ko C.A.T.'k eratu ta Ayuntamentuko EUSKAL IZTUNDE TALDEAK jarriko dizute: PIERRE LARZABAL antzerkigilleak egindako sikologi - antzerkia. Agora'k orain urrena eratu zun txapelketan, lenengo saria irabazitakoa.
Comedia psicológica, primer premio en el concurso teatral último organizado por "AGORA" y original de PIERRE LARZABAL.	
INPERNUKO DIRUA	
(LOCALIDADES EN TAQUILLA)	
A ... a mayores de 16 años	Amasei urtetik gorakoentzat

Unidad de la tarde. 1966-IX-9

Anton Luku zuzendari, obra hau Garazin berriro taularatu da 2013an, ia mende erdi geroago, bere funtsezko balioak argi uzten dituelarik.

Ezaguna da ere ETAk 1968ko abuztuaren bian hil zuela Meliton Manzanas torturatuarekin ezaguna eta askok sufritua. Biharamunean Gobernuak Gipuzkoarako *Estado de excepción* delakoa dekretatu zuen eta makina batek pasatu beharra izan zuten komisaldegi eta kartzelatik, tartean Joseba Arregik.

Urte honetan, famatua ere Pariseko maiatzeko mugimenduagatik, Roger Idiartek Telesforo Monzonekin batera **Matalas** obraren zuzendariak kontatzen du nola joan zirenean Baionako teatroko administratzailearengana alokatzera antzokia, esan ziela honek ea nola espero zuten sala betetzea, teatro frantsesak lortzen ez zuenez gero. Hala eta guztiz ere euskal teatroak bete egin zuela antzokia. Daniel Landartek esaten digunez, *Etxabun*, *Bordaxuri*, *Matalas...* Pastoral berrietako beste pertonaia ospetsu anitzetan gertatzen zen bezalaxe (*Etxabun* 1962, *Santxo Azkarra* 1963, *El Señor de Iruri* 1966, *Chiquito de Cambo* 1967...) asmo didaktiko argi eta garbi batekin saiatzeko da bersortzen eta asmatzen historia irudimenaren laguntzaz eta anakronismo poetikoz beteaz.

Matalas antzerkia Etxeberrak (2008:188) Larzabalen antzerkien artean gailurtzat jotzen du, eta harreraz mintzo dela honakoa: *Batzuek erran zuten Matalas Larzabal zela. Hierarkiari aurre egiten zion apaiza, agintariak zalantzan ematen zituen apaiza, herriaren alde egiten zuen apaiza eta sakrifizioaren egiteko prest zena helburuak merezi bazuen...*

Lau edizio ezberdin izan zituen Hegoaldean *Matalas*-ek (Antzerti 1984, Elkar 1992, Azpeiti 1997, eta Hiria 2010) ez dena gau erdiko ahuntzaren eztula, antzerki batentzat. Susan lehenak ere Mikel Antzaren komentarioa merezi izan zuelarik.

Eugenio Arozenak kontatzen digunez (2006:108) 1968ko otsailaren 28an hasi zituen harremanak Piarres Larzabalekin eta handik hogeitau egunera Oiartzungo Estankoa bezala ezagutu ostatuan izan zuten afaritxoan aurkeztu ziren idatzia *Lartaunen historia* antzerkia. Tartean Eugenio eta Piarresekin batera Xabier Lete eta Juanito Iñarra zeuden. Urte bukaerarako obra prestatua zeukaten Intxixukoek, baina 1969 urte osoa pasatu omen zuten baimenaren zain baimena iritsi zitzaiolarik Ignacio Albelaiz (sic) eskaera egileari 1970ko urtarrilaren 13an *Lartaum* konpainiari

Otsailaren 21ean antzeztu zuten frontoian Arozenaren zuzendaritzapean 26 antzezlarik oiartzuarrek obra, hala nola Xabier Lete eta Maria Lourdes Iriondo kantari ezagunek arrakasta handiz *Lartaunen historia*, non tratatzen ziren euskaldunen eta erromatarren borrokak. Herriko festetan (Abuztuak 8) berriro errepresentatu zen eta ondoko baldintza honen pean eman ziren baimena

alkateak, alegia, behar ziotela bi mila peseta ordaindu herriko *Hospital-Asilo* deitzen zenari.

Oiartzun, Urnieta, Zarautz, Hernani, Usurbil... Hamar herri ezberdinetan antzeztua izan zen *Lartaun*. Zarautzen antzeztear zeudela gobernadore zibilaren agindu zorrotza iritsi zitzairen, non esaten zien Piarres Larzabalen antzerkirik gehiago ez antzezteko, non eta talde guztia kartzelatzea nahi ez bazuten. Larzabalek Hernanin ikusi zuenean obra, berak idatzitako *Pastoral gisakoa*, oiartzuar erara, honakoa atera zitzaion: *Hau ez da nire antzerkia*.



Halere, ez bat bakarrik baizik eta beste bi ere idatzi zituen oiartzuarrentzat: *Aralar* eta *Orria 778*. Eta bilatu behar zuten zentsura nolazpait pasatzeko modua eta hau da Eugenio Arozenak antzerkia berea balitz bezala aurkeztu zuen baimenerako. Hona bere hitzak zuzen-zuzenean:

Piarres Larzabalek *Lartaun* antzerki lana idatzi zuen Oiartzuarrentzat eta taularatu ondoren izan zuen arrakasta ikusita pentsatu genuen egoki izango zela beste antzeko lan bat idaztea eta baita azkar idatzi ere. Lan hau “Aralar” izan zan, (gutxi gora behera 1971.urteko uztaila izan zen) baina garai haiek ziren, ziren bezalakoak eta gobernu espainolak Larzabal “Index”en sartu zuen eta izena bera ere aipatzea anatema bihurtu zen. Horrela *Aralar* antzerkia gustatu zigunez baimena Gobernu Espainiarrari eskatu behar zenez nirea bailitz bezela baimenak eskatu ziran. Horregaitik baten batek nire izeneko “Aralar” antzerkirik agertzen bada edo

ikusiko balu, hau Piarres Larzabalena da” pentsatu zazue kondairan hartu beharra izan genuen bidezidorra izan zela.

Zentsuraren Sailkapena hauxe zen: 18 urtetik gorakoentzat, eta zenbait kapitulutan ez soilik aldaketak baizik eta ezabatze osoak sufritu zituen. Hogeita hamar aldiz jokatu zen, (ekainean Ataunen eta irailean Oñatin, adibidez) eta Tolosako Teatro zaletuen lehiaketa elebidunean lehen saria irabazi zuen (1973-IV-25) hamahiru talde ezberdinen artean.

Sumbillan ere antzeztu zen *Diario de Navarra*-ko egunkariko kronikagileak honelaxe titulatu zuen: “*Aralar*” *Pastural tankerako antzerkia*. Gaia hain ospetsua izan zen Francisco Navarro Villosladak idatzitako *Amaya o los vascos en el siglo VIII* nobelaren gainean eratu zen, baina aski modu librean.



Mikel Forkadak burutu kartela Aralar antzerkiarentzat

Bordaxuri 1971an debekatu zuten bezala, 1973an Pio Barojaren *Altzateko Jauna* antzezteko Xabier Letek egin eskariari ezezkoa eman zion zentsurak, baina halaz ere jarraitu zuten Intxixuko taldekoek fermuki eta 1974-1975 urteetan *Orria 778* aurkeztu zuten. Hemen frankoak, mahometanoak eta baskoiak agertzen ziren borrokan, eta Eugenio Arozenak esaten digunez arrakasta handiz:

Orria 778 edo Altabizkarko kantua 52ren bat aldiz antzeztu zen 47 herritan, besteren artean lau hiriburuetan, baita Zaragozako Ikastetxe Nagusian ere. Batez beste 450 ikusle izatera iritxi zen. 1975.urteko udazkenera arte *Orria 778* antzerki lanarekin jarraitu genuen beste berri bati ekin genion artean.



Orria 778


1975ko apirilaren bostean Goaz taldeak *Senperen gertatua* antzeztu zuen Lukax Dorronsorearen zuzendaritzapean. Franco 1936tik gobernatzen ari den diktadorearen heriotza urtea da eta epe berri bati hasiera emango zaio. Zentsura desagertzeko bidean da, baina honek ez du suposatzen Larzabalen antzerkiak gehiago antzeztuko direnik, zeren eta Eusko Jaurlaritza sortzen denetik (1977) eta honen Kultur kontseilaritzapean Antzerki Zerbitzua mendea bukatu arte soilki Larzabalen hiru antzerki errepresentatuko dira Hego Euskal Herrian

Debako III Antzerki astean, 1989an Ostibarreko taldeak *Suedako neskatxa* jokatu zuen. Hurrengo urtean, hau da, 1990an Goaz talde debatarak *Ihautiriak* eman zuen eta XII. Antzerki astean Azpeitian 1998an Bordaxuri taldeak *Bordaxuri* taularatu zuen.

Lukax Dorronsoro Goaz taldeko zuzendariak adierazten duenez, 76tik zuten antzezlan hau eskuartean, multikopiaz izkutuan zabalduko kopia hain zuzen, eta 1989an eutsi zioten testu moldaketari eta euskara batuan ezartzeari. Eta *Ihautiriak* tituluak ez du zerikustekorik garai bateko antzerki ohikoarekin baizik eta satira, farsa bat delako ihauterietan egiten diren modukoa, gai ordea, muga du.

Frantxua Cousteau taldeko zuzendariak zioen: Bordaxuri Euskal herriko antzerki zahar bat da, Hazparden kokatua, duela 50 urte nguru idatzia. Guk gaurkotu egin dugu. Baserri bateko aita-semeen arteko ika-mikak jorratzen ditu, seriosa halaz ere. Maule eta Miarritzeko emanaldietan gazteak ere hurbildu dira eta pozik gara horrekin, obra ezagutzen duelako jin baita jendea. Deliberatu genuelarik *Bordaxuri* emaitza 'hori zaharkitua da' erran ziguten batzuk. Emaitza ikusita garbi dago halako istorio bat kontatzen ahal dela, baserri batean

kokaturik ere, ez baitigu inortxok ere erran itxura zaharkitua duenik” (ARGIA, 1998-IV-12).



Goaz, Debako teatro taldea, Ihauteriak (1990-VII-21)

Beraz, kezkatu zebilen zuzendaria obraren zaharkitzea, baina geroago Anton Lukuk 2013an egin *Inpernuko dirua* antzerkiaren adaptazio eta moldaketa berriaren funtsezkoa mantentzen da, eta horrek oinarri Larzabalen testuan dauka.

Honeraino gure lantxoa, berriro deitoratuz 1984ean eskatu genuen Antzertiteka edo Arte Eszenikoen Dokumentazio Zentroa oraindik ez edukitzea eta informazioa osagabe batekin lan egin behar izanaz, gure historia eta literatura ikertzeko era duinean.

Bukatzeko bada Daniel Landarten hitzak erabiliko ditut euskal literatura eta bereziki teatrogintzako gailur izan zen Pierre Larzabalez:

Pertsonalki ezagutu dudan Piarres Larzabal gizon ona zen, biziki ona. Ausarta. Osoa. Balentrialaria. Zerbait buruan hartuz geroz, bururaino eramaten zuena. Irriz ezin asea eta denbora berean arras serioa. Errotik jendakina. Apez apala. Otoizlaria. Beti zerbitzu egitera ekarria. Iratzeder poetak erran lezake : emana. Bai, bere izaite guztia besteei ematen zien. Horiek horrela, « ttankako » bat bazuela ?! Baina « ttankakorik » ez balu ukan, ez zen Larzabal izanen...“

Bibliografia

Edizioak

- 1934 *Irri eta nigar*. GURE HERRIA.
1937 *Merkatutik*. GURE HERRIA .
1952 *Okilomendi Jaun Mera*. EGAN.
1953 *Etxabun* . GURE HERRIA.
1960 *Muthil berri*. GURE HERRIA 1960.
1962 ZAVALA, Antonio (ed.), *Bordaxuri*. Auspoa 11, Tolosa.
Iru ziren. Auspoa 14, Tolosa.
Herriko bozak edo nor alkate. Auspoa 21, Tolosa.
1964 *Senperen gertatua* (Itz.: L. Villasante). Auspoa 34, Tolosa.
1965 *Hilla esposatu* (Itz.: M. Lekuona). Auspoa 44, Tolosa.
1983 ANTZERTI ZERBITZUA, [Orria 778 edo] *Altabizkarko kanta*.
Antzerti 64. Donostia.
1984 *Mugari tiro* . EGAN .
1984 *Sarako lorea*. EGAN .
1985 *Suedako neskatxa* . EGAN.
1985 *Berterretx* . EGAN.
1987. *Ihauteriak*. EGAN.
1989 *Aralar* . EGAN.
1984 ANTZERTI ZERBITZUA, *Matalas*, 1. ed. Antzerti 69. Donostia.
1992-1997 XARRITTON, Piarres (ed.), *Idazlanak*. (I-VII), Elkar, Donostia.
1997 *Pierre Larzabal Carrere (1915-1988) Azpeitiko antzerki topaketak*,
Oroituz. Heriotzaren hamargarren urtemugan.
2010 AURKENERENA, Joxeba (ed.) *Larzabalen antzerki kaiarak*. Hiria,
Donostia.
2015 *Matalas*. EGAN.

Internet : ik.: Klasikoen kriseilua & Armiarma.eus

Liburu eta artikuluak

- ARESTI Gabriel, “*Euskal teatro berri baten beharra: euskal komedia*.”, *Artikuluak*,
Hitzaldiak, Gutunak. Susa, Zarautz 1986.
ARozENA Eugenio, *Euskal Antzerkia Oiarzunen*. Mugarri, 2006.
ETXEBERRIA Ixabel, *Piarres Larzabalen antzerkigintza 1950-1982: euskarazko*
antzerki identitarioaren paradigmak, eranskinak. UB /BU, 2008.
ETXEBERRIA Ixabel, “Piarres Larzabal (1915-1988) eta antzerki identitarioa”,
OIHENART 25, 2010, 199-215.
LABAIEN Antonio, *Teatro éuskarro. Notas para una historia del arte dramático vasco*,
eta *Teatro éuskarro. Entrevistas, Reseñas, Crónica. Catálogo de obras dramáticas*.
Añamendi, Zarauz 1965.

- LANDART Daniel, "Piarres Larzabal". *EGAN* 2008-4. 61-66.
- MENDIGUREN Xabier, "Piarres Larzabalen idazlanak". *ARGIA* 1991-07-07.
- MICHELENA Luis, *Historia de la literatura vasca*. Minotauro, Madrid 1960.
- SUDUPE Pako, *50eko hamarkadako euskal literatura. III. Antzerkia eta hamarkadaren ikuspegi orokorra*. Utriusque Vasconiae. Donostia, 2011.
- URKIZU Patri, *Euskal teatroaren historia*. Kriselu, Donostia 1975.
- URKIZU Patri, "Euskal antzertia iparraldean (1867-1939)", *Euskal Antzertia. Le théâtre Basque*. Ed. P. Bidart & Tx. Peillen Université de Pau, Bayonne 1987, 39-52.
- URKIZU Patri, (ed.) *Piarres Lafitte, Euskal Literatura*. Erein, Donostia, 1990.
- URKIZU Patri, "Jean Baptiste Chaho: Barde baten izaitia", *HEGATS* 5, 1991, 29-37.
- URKIZU Patri, "Anacronismo, panfleto y poesía en el teatro histórico vasco del postfranquismo", *El teatro Histórico 1975-1998. Textos y representaciones*. Visor, Madrid, 1999, 595-605.
- URKIZU Patri, & INTXAURRANDIETA Patxi, *Senpereko Kantu Xabarra. Oxtikenekoak*. Eusko Ikaskuntza, Donostia, 2001.
- URKIZU Patri, *Teatro vasco. Historia, reseñas y entrevistas, antología bilingüe, catálogo e ilustraciones*, UNED, Madrid, 2009.
- URKIZU Patri, "Euskal Antzertia Erbestean (1937-1959)", *Arte eszenikoak erbestean*. Koor. Iñaki betiz & Mari Karmen Gil, Saturraran, Donostia 2009, 49-367.
- XARRITTON Piarres, "Piarres Larzabal antzerkigile", *Piarres Larzabal, Matalas*, Antzerti 69, Donostia, 1984, 7-10.
- XARRITTON Piarres (ed.), *Piarres Larzabalen oroitzapenak*, Elkar, Donostia, 1998.
- ZENBAITEN ARTEAN, *Literatura Terminoen Hiztegia*. Euskaltzaindia, Bilbao 2008.
